

Arrasate

P R E S S

2001.eko
urriaren 5a
556. zenb.



25

Maritxu Kajoi 2001

Txikiteroen jaiaren 25. urteurrena

Etorkizuna ez da etortzeko dagoen zer bait.

Bila gabiltzana baizik.



Audi A4 berria.

Geroago eta auto hobek egiteko, etorkizunari aurre hartu beharra dago. Sortu bariko arazoei irtenbidea topatu. Karrozeria dinamikoagoak eta sendoagoak diseinatu, multitronikarekin aldaketa automatikoan iraultza eragin, zilindro bakoitzeko bost maskorren teknologiarekin motor indartsuen gama berria sortu edo Tdi V6 aurreratuenak.

Batzuetan, ezin diogu etorkizunari itxaron. Etorkizuna gauzatzeko lan egin behar da.



Udalaitz, S.L.

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE
Tel.: 943 71 18 70

*Zure zerbitzura
gaude*

*Ondo pasau
Maritxu Kajoi egunean!!!*

L Leintz
Garraioak S.L

San Andres auzoa, 10D • ARRASATE
230 Posta kutxatila • Tel.: 943 71 27 07 / 943 71 17 69
E-maila: leintzgarraioak@leintz.com
Web orria: www.leintz.com



urteurrenak

Istiluak osoko bilkuran

■ 79. zenb.

1990eko urriaren 5ean idatzi genuen...

Aurreko egubakoitzeko osoko bilkura aspaldiko istilutsuena izan zen. Osoko bilkura grabatzen BBC telebista kate britainiarra izan zen. Hitza Jose L. Lana sozialistak hartu eta aurreko Gobernu batzordeak aldibereko itzulpena ez jartzeko erabakia gaitzetsi zuen. Sozialistek zerbitzu hori jartzea eskatu zuten, eta alkateak eta Xabier Lasagak itzultzailea ez dela kendu gogorarazi zioten, eta elektoralistatzaile jo zuten Jose L. Lanaren esku-hartzea. Gero, hitz beroak izan ziren, eta sozialistak osoko bilkuren aretotik irten ziren.



Liburu azokarik ez

■ 79. zenb.

1990eko urriaren 5ean idatzi genuen...

Aurten ez da liburu azokarik egingo. Guztira, hamaika erakuslek eman dute izena; iaz, hemezortzi izan ziren, eta Jaurlaritzak dirulaguntzak murriztu egin ditu. Udalari, 200.000 pezeta eskatzeaz gain, kartelak atara eta beste ekintza batzuetaz arduratzea eskatu diote, baina Udalak ez du kopuru hori ordaintzerik onartu. Erruak erdibana, baina penagarria benetan, orain arte azoka garrantzitsua izan da-eta.

besteek esana



1993an, Espainiako Legebiltzarrean hamalau urte eginak nituela, jardun horretan etenaldia egitea pentsatu nuen, eta Mondragon Korporazio Kooperatiboan aurretik egiten nuen lanera itzuli nintzen (...). Baina maiatzaren 14ko bozketan zer gertatu zen ikusita, hau da, nazionalismo espainiarrak euskal nazionalismoari egindako eraso bortitza, eta lortutako emaitzen ondoren (600.000 boto baino gehiago sostengatzen dudana programa baten alde), erabaki dut gonbidapena onartzea eta Eusko Jaurlaritzan parte hartzea, gobernu berriak herri honetan itxaropena eta ilusioa piztu baititu.»

Joseba Azkarraga
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILBURUA
EUSKALDUNON EGUNKARIA

(2001eko urriaren 2a)

Unibertsitatara autobusak


■ 79. zenb.

1990eko urriaren 5ean idatzi genuen...

Udaleko Gazte Zerbitzua, PESA autobus konpainiarekin batera, Unibertsitatean ikasketak egiten ari diren gazteendako eguneroko autobusak antolatzeke asmotan dabil. Guztira, 87 ikaslek eskatu dute zerbitzu hori. Autobusak urriaren 15ean hasiko dira zerbitzu hori eskaintzen.

aurkibidea

• Lehen begiratuia	3	• Orain eta hemen	8/10	• Kulturaren txokoa	33/34
• Asteko hitzorduak	4	• Txutxumutxuak	12	• Beheko dendatik	36
• Herritarren berbak	5	• Asteko Gaia	16/18	• Uhinetan barrena	37
• Astearren errepasoa	6	• Maritxu Kajoi 2001	23/26	• Foto zaharra	38
• Inkesta	7	• Kirolak jokoan	29/30		



Foru Aldundiak eta Udalak hitzarmena sinatu eta ondorioz, Foru Aldundiak egiteko. Argazkia: Javier Etxezarreta.

2001-10-05 • ARRASATE PRESS /3



ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@goiena.com
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitatea:** Arantzazu Lagunilla, Natalia Martinez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar (Tel.: 943 71 23 90) **Disinazioa:** Alex Azkarate. **Astoburuariako berriemakilea:** Lorea Agrifano. **Banaketa arduraduna:** Iulen Aranguren-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.600. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko konzentratua. **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

ZERBITZUAK

Eritetxoak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (lberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jai egun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

nortasun agiriak

Nortasun Agiria egin edo berritu behar baduzue, txanda hartzeko zenbakiak urriaren

15ean jaso ahal izango dituzue, Udaltzaingoan.

soldadura ikastaroa

Udalak emakumeei zuzendutako 400 orduko soldadura ikastaroa antolatu du. Aretxabaletako Institutuan emango dira eskolak, 08:15ean, urriaren 15etik martxoaren

18ra. Argibide gehiagorako edo izena emateko, jo Udaletxera edo deitu 943790900 telefonora.

dantza eta eskulanak

Urriaren 11n bukatuko da Ekin-en dantza eta eskulan ikastaroetan izena emateko epea. Aret dantzen ikastaroa urriaren 15etik

abenduaren 17ra bitartean izango da; eskulanena, berriz, urriaren 17tik abenduaren 19ra.

begirale ikastaroa

Txatxilipurdik begirale ikastaroa emango du 18 urtetik aurrerakoentzako. Izena ematea urriaren 11 baino lehenago egin beharko da

elkartearen egoitzan edo 943795446 telefonoan.

yoga ikastaroa

Ikastaro berria antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak. Urriaren 10etik abenduaren 19ra izango da, eguaztenero, 10:00etan eta

20:30ean. Izena emateko, deitu 943796698ra, 21:30etik aurrera, edo 943793576ra.

gazte txokoak

Maritxu Kajoi dela eta, egubakoitzean Uribarriko Gazte Txokoan ileapaindegi eta

makilaje tailerra izango da, 17:00etatik aurrera.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 5

- Morales, Araba

Zapatua, 6

- Azkoaga, Ferrerías

Domeka, 7

- Azkoaga, Iturriotz

Astelehena, 8

- Corcuera, Aranbarri

Martitzena, 9

- Irizar, Erguin

Eguaztena, 10

- Amezua, Santa Marina

Eguena, 11

- Zabala, Zarugalde

LOS VAQUEROS

Zerkaosteta, 3 • 943 79 98 48
Zerkaosteta, 5 • 943 79 97 55



Herritarren berbak

Deskonektatu

Itziar Ezpeleta / Jaizalea

Ematen du oporrak atzo pasatu zirela eta Maritxutan gaude. Esaten da gogoratzea berriro bizitzea dela, ados. Eta oraindik oporrak gertu dauzkagu: argazkiak, komentarioak, eta abar. Norantz doa nire pentsamendua... akaso gure bizitza edo bizitzaren bide "programatura".

Jaio eta bi edo hiru urte pasatzen ditugu familiaz gozatzeko, gero sartzeko:

1— umeak eta gazteak: ikastolan, unibertsitatean

2— gazteak eta helduak: lanean

3— helduak eta nagusiak: (hau hutsik uzten dut programazio horretan; baina ni hemen sartzen naizenez, gus-tatuko litzaidake horren gainean berba egin edo idaztea).

Programazio horretatik irten edo "deskonektatu" beharra daukagu; hori ez da, baina, nire ustez, gure bizitzaren ardatza.

Eta deskonektatzeko dugun denbora luzeena oporrak dira! Gure ametsak betetzeko egunak. Txoriak bezala hegan egiten dugu, bestelako herri eta jendea ezagutzeko; edo ez dakit zein mendi igo edo eskalatzeko edo hondartzara igeri egiteko edo beltzaran jartzeko; edo batek esaten zuen moduan: egun osoa "venga a no hacer

nada", edo...

Hau dena, nire ustez, oso ondo dago; baina, nire burua programatuta dagoenez, nik uste dut oporrak ez direla geratu behar horretan bakarrik, oporrak oxigenoa eta indarra emateko izan behar direla, eta indarberrituta gogor eta gogoz gure bizitzako bidea hartzeko.

"Akaso Maritxu da Mondragoeko herritar ia guztiak lotzen gaituena"

Eta gaur, Maritxu, berriro deskonektatzeko. 25 urtean denetarik izan dugu: tirabirak, mirariak, non ipini, eta abar... Azkenean, bizitza honetan, elkarriketak eta akordioak lortzen duten miraririk ederrena lortu dugu. Batzuk ez dira egongo ados zerbaitekin, eta beste batzuk, bada, ez dakit, baina, jeneralean, denok goaz jai horretan sartzen. Nik esango nuke, gaur egun, akaso Maritxu dela Mondragoeko ia herritar guztiak lotzen gaituena. Denok dotore janzten gara, gure lagunekin afaltzeko elkartzen gara, eta bai elkarreetan, jatetxetan edo kalean bat egiten dugu. Gure helburua da ondo pasatzea, eta gure problemak alde batera utzi eta gozatu gure lagunekin eta herriko jendearekin, a! afari goxo bat dastatu eta gero.

Oraingo urtean ere, ea ospatzen dugun Maritxu umore onarekin, eta, ahal bada, denok batera. Ondo pasatu!

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

- Unibertsitatean edo unibertsitate kanpo ikasketak egiteko izaera orokorreko bekak. Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Epea: urriak 15.
- Gipuzkoako Historiari buruzko ikerketa-beka bi, Foru Aldundia- ren eskutik, goi mailako unibertsitate tituludunendako. Epea: urriak 20.
- Alemaniako Unibertsitateetan, udan, ikastaroak egiteko dirulaguntzak, goi mailako ikasleendako eta katedra laguntzaileendako. Epea: azaroak 30.
- Alemaniako Goethe Institutuan hizkuntza ikastaroak egiteko dirulaguntzak. Azkenaurreko edo azken urteko unibertsitate goi mailako ikasleendako. Epea: abenduak 12.

■ IKASTAROAK

- Perkusio ikastaroa, Iñaki Bruñaren eskutik. Rock-perkusioa, ahots ikastaroa, perkusio afrikarra, salsa, flamenkoa, eta abar. Astelehenetan, 18:00etatik 20:30ak arte, Gazteluondo ikastolako aretoan.
- Euskal dantza ikastaroa, Udaleko Gazteria Sailak antolatuta. Lore Gazteak-en eskutik. Urriaren 19an hasi eta abenduaren 1a arte, egubakoitzetan, 19:00etatik 20:30ak arte.
- Hastapen mailako argazki ikastaroa, azaroaren 6tik abenduaren 4ra, martitzen eta eguenetan, 18:30etik 21:00ak arte, ASaren egoitzan.
- Bio-dantza ikastaroa, Udaleko Gazteria Sailak antolatuta. Nor bere adierazpena, bizitasuna, sormena eta autoestimua lantzeko ikastaroa. Azaroaren 10etik abenduaren 15era bitartean, 16:00etatik 19:00ak arte. Izena ematea: 4.000 pezeta/2.500 ikasle edo langabeendako.
- Hastapen mailako sukaldaritza ikastaroa, Ekin emakume taldearen eskutik. Astelehenetan, 19:00etatik 21:00ak arte, urriaren 8tik abenduaren 10a arte.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

943 77 00 65



USTEAK USTE

Ez dauka parekorik

Ez dira hogeita bost urte erraz betetzen, eta horiexek dira, hain zuzen, Maritxu Kajoi batzordeak lanean daramatzanak. Jaiak ez dauka parekorik. Santuen izendegitik kanpo sortua, parrokoaren onespénik gabe, txikiteroena da izatez. Egun eta gau bakarrean ospatzen da, ez du Udalak antolatzen eta ezaugarri oso bereziak ditu: dotore janzteko ohitura edo urteroko "mirari" paregabeak, esaterako. Ezin ahaztu, adibidez, iazko "mirari"aren bitartez Arrasaten Hondarribiako konpainia mistoak desfilatua izana. Zoritxarrez, horrek ez du euren herriko arazoa konponduko, baina autoestimua, behintzat, pixka bat altxatuko zitzaion, eta hori ez da gutxi!

Urteurren borobila, hortaz, urriaren lehenengo egubakoitzak gaur beteko duena. Jaiak gogor dirau, baina ohitura batzuk aldaturaz doaz halabeharrez: jaiaren erakargarritasuna dela-eta, gauean jende ugari biltzen denez, gero eta arrasatear gehiagok jaia afal orduan hasi beharrean, eguerdian bazkaltzeko koadrila batu eta herrikoia eta lasaia ospatzen dute Maritxu egunean zehar.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Itxialdia bukatu dute

Puerto-1 kartzelan dauden euskal preso politikoek itxialdia utzi dute, 11 hilabeteren ostean. Presoen artean, Josu Uribeberria mondragoetarra dago. 2000ko urriaren 26an ekin zioten itxialdi mugagabeari, bizi baldintza duinak eskatzeko. Besteak beste, euskaldun guztiak modulu berean egotea eskatzen zuten, eta kartzelako zuzendariak agindu die sei hilabete barru batera egongo direla.

■ Atxiloketak

Udaltzaingoak bi lagun atxilotu zituen joan den eguaztenean. Hainbat herritar irain-tzeagatik eta udaltzainei eraso egiten saiatzeagatik atxilotu zituzten. Bi lagunek ez zuten dokumentaziorik, atzeritarrak ziren. Epailearen aurrera eraman zituzten, eta, deklaratu eta gero, aske utzi zituzten. Lehenago ere izan

dituzte tirabirak beste herritar batzuekin.

■ Industria Museoa

Industria Museoa egiteko lehenengo urratsak egiten dihardute. Joan den eguaztenean, adibidez, batzarra egin zuten herrian esanguratsua diren zenbait lagunek eta Xabide enpresak, museoaren proiektuaren arduradunak; besteak beste, Museoaren Lagunak elkarteak, Turismo, Ikerlaneko edo Saio-laneko ordezkariak parte hartu zuten. Industria Museoaren gaineko iritzia eta proposamenak egitea eskatu zuten. Izan ere, gero, informazio hori aztertu eta Udalak erabakiak hartu beharko ditu. Mota horretako batzar gehiago egingo ditu Xabide enpresak. Besteak beste, oraingo hilean, urrian, talde politikoak elkartuko ditu gai horren gainean berba egiteko. Horrez

gain, banakako elkarrizketak ere egiten dabilta.

■ Aralar Udalan

Joan den astean, Aralar alderdi berriaz berba egiteko batzarra egin zuten 20 bat lagunek, debagoiendarrak guztiak ere. Udala auzoko taberna batean elkartu ziren, eta, besteak beste, Aralar alderdi politikoaren aurkezpena egin zuten Aralar taldeko bozeramaile Patxi Zabaletak eta Juan Martin Elexpuru idazle bergararrak. Oraingo astean, berriz, Bergaran egingo dute batzarra, han ere alderdi politiko berria eza-gutarazteko.

■ Zuzenketak

Joan den astean, errepassoko lehenengo albistearen titularrak okerra zen; guk, "aukera berdintasuna" ipintzea gura genuen, baina, "aukera desberdintasuna" azaldu zen.

■ Gudari Eguna

Eguenean, Gudari Eguna ospatu zuten Mondragoen, Euskal Herriko gainerako herri guztietan moduan. 19:00etan, jende ugari elkartu zen Seberren, eta han batutakoek lore bana hartu eta gero, manifestazioa egin zuten. Urtero legez, geldialdiak egin zituzten hildakoak gogoratzeko; *Eusko Gudariak* kantatu eta lore eskaintza egin zuten leku bakoitzean. Tentsio unak izan ziren manifestarien eta Ertzaintzaren artean, baina ez zen istilurik izan. Herriko plazan bukatu zuten ekitaldia.



UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

TTUKUN
Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Ze mirari gustauko litxakitzu Maritxuk egittie?

Maritxu Kajoik urtero egitten dau mirarixe jendiaren aurrien.



Estixu Ugarte
(ikaslie)

Presoren bat askaketie.




Puri Urrutia
(langillie)

Egitten dauenakin konforme egongo naz.



Karmen Iturriaga
(etxekoandrie)

Formalidate gehixago; izen be, ganberrismue konpletue da.




Jesus Errasti
(jubilaue)

Barrio be ura arda bihurtietie! Maritxuk egingo dau, munduko polittena da-eta!



Jokin Iria
(jubilaue)

Bakie eskatuko neuskio, ia Euskal Herrixen noiz lortzen dogun hori!



Antonio Etxagibel
(jubilaue)

Mondragoen, behintzet, bakie egotie, hori gustauko litxakit Maritxuk egittie!



Javi Martín
(ikaslie)

Danok ondo bizi izetie!



Tania Gómez
(ikaslie)

Zerutik milloiak botatie eskatuko neuskio Maritxuri.

GORKA

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:00

ILEAPAINDEGIA **SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE Tel.: 943 77 13 78

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

Zaborra edukiontzietan



Horrelako egoerak ez ditugu berriro ikusiko.

Zaborra batzeko sistema berria ipiniko du laster Debagoiene-ko Mankomunitateak: edukiontzia, hain justu. Eta, jakina, aurrerapen nabariak ekarriko ditu edukiontzi bidezko

sistema horrek: batetik, zabor poltsak ez ditugu kalean utzi beharko, eta, hala, orain arteko zikinkeria arazoak konpondu egingo dira; eta bestetik, edozein ordutan atera ahal izango

dugu zaborra.

Orain, Mankomunitatea azterketa egiten ari da, herri bakoitzean zenbat edukiontzi behar diren zenbatzen. Bukatu barik dago oraindik, baina, batez beste, Mondragoen 175 edukiontzi behar direla uste dute, eta Debagoiengan, 672 bat.

Urtarrilerako ipini gura dituzte edukiontziok, eta, horrekin batera, beste erosketa batzuk egingo dituzte: bi kamioi, esaterako. Italiatik ekarriko dituzte, eta edukiontzietatik zaborra batzeko izango dira. Horrez gain, beste kamioi bat ere erosi beharra dute, edukiontziak garbitzeko. Zabor bilketa Debagoiengan egingo da, gauzez, orduan baitabil automobil eta jende gutxien.



Pibotea apurtuta

Joan den asteko irudia duzue hau. Eguerdian, automobil bat Olarte kaletik irtetera zihoi- la, urruneko agintarekin pibotea jaitsi eta pasatzera zihoi- anean, piboteak berriro ere gora egin zuen. Kolpearen ondorioz, autoari erradiadorea apurtu zitzaion, eta pibotea oso-osorik bere lekutik atera zuen. Oraindik pibotea ipini barik dago, hortaz, Arbolape- tako sarrera ezin da itxi.

 <p>Pando Errotuloak</p> <p>Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia) Tel.-Fax: 943 79 79 70</p>	Argidun kartelak
	Ibilgailuak
	Stand-ak
	Itsasgarriak
	Binloa
	Señalizazioak
	Lonak
	Erliebedun hizkiak

IRALA

BITXITEGIA

Olarte, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 36 47

Zeramika tailerra

Zer da?

10-12 laguneko talde txikian zeramika piezak egin eta apaintzeko hainbat teknika ikasiz, ondo pasatzeko ikastaroa.

Nork ematen du?

Loixe Zeramika Eskolako Ainhoa Arregi da irakaslea.

Noiz?

Urriaren 17tik abenduaren 19ra bitartean, eguazteno, 15:30etik 17:30era.

Izena emateko...

Elkartean bertan eman behar da izena, eta matrikula urriaren 12a baino lehen ordaindu behar da.

Ekin
Emakumeak • AED

Interesatuak:
943 77 12 28
610 04 24 39
Pablo Uranga, 6
ARRASATE

Antolatzaileak:



Loixe

Zeramika Elkarte

Laguntzaileak:



ARRASATEKO UDALA

Emakume Sailsa



Gipuzkoako Foru Aldundia



ZELAIMA

OÑATI

1970. urlean sortua

Santa Marina, 3 - Telefonoa: 943 71 62 81



Sukaldeak

... urte askotan goza ditzazun pentsatuta.

... granito eta silestonezko gainak.

... instalakuntza profesionala, akabera bikainak.

... etxetresna elektrikoek ekipamendu osoa.

... norberari egokitutako sukaldeek proiektu eta diseinuak.

eta Bainuak

... zure bizi-estiloarekin bat datozenak.

... aukera handia komun eta bainuko altzarietan.

... leku txikietan prestazio handiak eskaintzen dituzten hidromasajerako bainerak.

... bainuko kabinak eta manparak.

... txorrotak eta bainuko osagarriak.



Eskatutako obra epe motzenean egingo dizugu gure langileekin.
Proiektu eta aurrekontuak konpromisurik gabe.

Gauzez ere autobusak izango dira



Pesa enpresa arduratuko da gaueko zerbitzuaz.

Bihartik aurrera, zapatua, autobusak gauzez ere ibiliko dira Gipuzkoan, eta, ondorioz, Mondragoe eta inguruetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarritako ekimena da. Izan ere, gazteek ohitura eta usadioak aldatu dituzte eta geroago eta gehiagok zapatu gauak aprobetxatzen dituzte aisialdirako eta batetik bestera ibiltzeko. Baina horrek,

zoritxarrez, auto-istripu gehiago ekarri ditu. Horregatik, eta ahal den neurrian automobil pribatuak gutxiago erabil dituzten, Foru Aldundiak eta garraio publikoko enpresek erabaki dute gaueko zerbitzua ipintzea. Gipuzkoako herri handienak lotuko dituzte gaueko autobusek zapatuetan, 23:00etatik 06:00etara. Gure ibar eta inguruetan Eibartik Eskoriatzarai-

noko autobusa izango da, baita, Zumarraga, Oñati eta Mondragoe lotuko dituen beste zerbitzu bat ere.

FROGAK

Hasiera batean, zerbitzu horiek frogan ipiniko dituzte bost hilabetez. Tarte horretan ikusiko dute zerbitzu horrek zein harrera izan duen eta zein den funtzionatzeko modurik egokiena.

Gaueko zerbitzuek ohikoek baino kostu handiagoa dutenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 18 milioi pezeta pasatxoko (110.000 euro pasatxo) dirulaguntza emango du.

Ordutegiak:
Eibar-Eskoriatza: Eibar: 00:00etatik 06:00etara, 90 minuturo
Eskoriatza-Eibar: Eskoriatza: 00:00etatik 06:00etara, 90 minuturo
Zumarraga-Oñati-Arrasate: Zumarraga: 00:00, 02:30, 05:00 Arrasate: 01:15, 03:45, 06:15

Biribila abian

Berriro ere hasi dituzte Musakolako Oñati kalearen inguruan egin gura duten biribilarren lanak. Joan den irailaren 3an geratu zituzten lanok, Oñati kaleko 2. eta 4. atarrietako bizilagunekin izandako ika-mikengatik. Gogora dezagun Udalak biribila egitea gura duela Oñati kalea eta Gipuzkoa etorbidea elkartzen diren lekuan. Baina hango auzokideak ez zeuden ados Udalaren egitasmoarekin, biribila atariraino bertaraino iritsiko litzaieke-eta. Horregatik, biribila egiteko beste alternatiba bat aurkeztu zioten Udalari, hark azter zezan: biribila bai, baina oraingoa baino apurtxo bat gorago. Orain, azterketa egin eta gero, Udalak adierazi du auzokideek aurkeztutako biribila ez dela bideragarria, ez lukeela bere funtzioa behar bezala beteko. Hortaz, ez du onartu auzokideek egindako proposamena.

Diru gehiago kiroldegirako

Musakolako Kiroldegiko lanak egiteko aurrekontua handitzea erabaki du oraingo aste-ko Gobernu batzordeak. Kontua da lan berriak agertu direla: batetik, kanpoko sarrera hobetzeko lanak egin behar dira, zailtasunak dituen jendearendako sarrera egokitze-ko, hain zuzen ere; eta bestetik, kiroldegirako megafonia ipini beharra dago.

Udaleko Gobernu batzordeak zazpi milioi eta erdi peze- ta inguruko aurrekontua onartu du lanok egiteko. Eta dago- eneko hasi dira lanean.

Sartu eta probatu



Komun publiko berria doan izango da. Hasieran, gauzez itxita egongo da.

Egubakoitzean ireki zuten Seberren, eta ikusmin handia sortu du; izan ere, oso moderno da, den-dena automatikoa: itxi eta zabaldu, garbitu, argia

ipiztu... erabiltzaileak ahalik eta gauza gutxien ukitzeko, eta, horrela, garbi-garbi mantentzeko. Doan da, baina gauzez itxita egongo da.

Txartel bakarra

Debagoieneko Mankomunitateak kirol txartel bateratua onartu du. Maiatzean eta ekainean frogaldia egin eta gero, Mankomunitateak aurrera egitea erabaki du. Hortaz, kirol txartel hori gauzatzeko beharrezkoak diren pausoak egin eta gero, kirol txartel bakarra izango dugu ibarrean. Horrek esan gura du hemengo edozein kiroldegitan sartzeko balioko duela. Mankomunitateak Debagoieneko udal guztiei emango die txartel bateratua egiteko aukera. Gero, udal bakoitzak erabakiko du egin edo ez. Mankomunitateak 2002an jarri gura du abian.

Aurrezki gorakorra

Euskadiko Kutxa

Laugarren seihilekoa

%3,50

Hirugarren seihilekoa

%3,25

Bigarren seihilekoa

%3

Lehenengo seihilekoa

%2,75

%3,27 UTB

2 urterako gordailua * milioi 1 pezetatik aurrera
(6.010,12 euro)


Interesak sei hilean behin likidatuko dira. Interesak kapital higigarriaren errendimendutzat hartuko dira eta, beraz, %18ko atxikipena aplikatuko zaie.

Eskaintza honek 2001-10-13ra arte balio du • Euskadiko Kutxak 15 eguneko epea emango du pentsatzeko, nahi izanez gero, eragiketa bertan behera uzteko • Informazio gehiago: 901 333 444 / www.cajalaboral.com

Aurrezki Gorakorra

Interes-tasa sei hilean behin handituko dizun inbertsioa.


901 333 444
www.cajalaboral.es


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin
elkarlanean

25 URTE ELKARREKIN

Jose Maria Etxabek eta Antxoni Zubizarretak zilarrezko ezteiak beteko dituzte urriaren 15ean. Arantzazun izango dute meza, eta Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean bazkalduko dute gero. Horren guztiaren ondoren, Budapest, Praga eta Vienan zehar bidaia egingo dute. Zorionak, eta urte askotarako!



URTE ASKOTARAKO, BIKOTE!

Antonio eta Tere ezkonberriak dituzue hemen. Joan den egubakoitzean, irailaren 28an, ezkondu ziren Gasteizen. Ezkonbidaia geroko utzi dute; herrian ere izango dute giro ederra. Zorionak, lagun koadrilaren partetik baita guretik ere!

ZORIONAK!

Neskatilatxo panpoxa zen, eta orain, are panpoxago dago Nahikari Ganboa. Horrela ikus dezakezue ondoko argazkian. Bertan, umezaroko eta gaur egungo itxurarekin agertzen da. Gaur, egubakoitza, 17 urte bete ditu. Zorionak!



URTEBETETZE ZORIONTSUA!

Naiara Capellán Azkarate duzue neskatxa hau. Urriaren 2an, bi urtetxo bete zituen. Hori dela eta, aita-amek, aita-tak eta amamak zorionik beroenak opa dizkiote. Geure partetik ere, zorionak, neskatxa!

JOXAN
BITXITEGIA
ETA
ERLOJUDENDA

Maixu Arana, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 22 24

Maritxu Kajoi
egun bitxia
izan dadila!!

MUXIBAR


Tel.: 943 79 11 25
PIZZAK



García Ripa
ERREFORMAK S.L.
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



- Astean zehar eguneko menua
- Aste bukaeretan plater konbinatuak

ANBOTOSTE TABERNA

Larrea Plaza, 2.ena • 20500 • Tel.: 943 79 68 30



UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



Ondo
pasatu
Maritxutan!

San Juan, 1 • BERGARA • Tel.: 943 76 54 91. Faxa: 943 76 08 04

CITROËN C5 BERRIA

TENOLOGIA DIGITALA %100 ERABILGARRIA



www.citroen.es

CITROËN C5

ETOR ZAITEZ IKUSTERA:

CHAPIME TAILERRAK Citroëneko kontzesionario ofiziala

Araba Etorbidea, z/g. Tel.: 943 79 45 22 • ARRASATE



CITROËN

Maritxutan ere, aparteko giroa!!!



ALDAPE

Taberna

Espezialitatea: menua-karta

Iturriotz, 41

Tel.: 943 79 70 41

ARRASATE



BASATI

TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711762

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Goiz Alde

ONDO PASATU MARITXUTAN!!!

Iturriotz, 33 Tel.: 943 79 11 15

Jai Zale Taberna ★
Olarte 37, Behea Tel.: 943 796 792 Arrasate
Cine Desberdin Bat!
ARRASATE

BIONA
TABERNA

Aupa Maritxu!
Aupa Arrasate!

OKORETEGI

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 62

ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!



Egitaraua**Urriak 5, Eguakotxa, Maritxu Kajoi (goixetik goixera).**

Goixeko 8etan: egune ederto hasteko itxafleruek.

Imanol "betaurreko ttipi", Maritere Campos "Zelai", Isabel SS "Donostia". Gaijartzailie: Joxemari Calleja.

Goixeko 10etatik aurrera jaixek ondo hasteko, elixak hamarretako edarra eskainiko dusku herriko txikitero guztixei. Bertara hurbilketako, seberotik hasitte prozesiñue egongo da. Adi danok! Bidien ziher kondoiek banatuko die.

12etan herriko plazan dantzaldixe "Laiotz" taldiaz. Ordu berien eta seberon triki berbenie "Luhartz" taldiaz.

Arratsaldeko 5etan, aurten be "Auskalo" taldiaz kale animaziñue; 6etan barrez, talde berdiñek "kroketa zopa" berbenie eskeiniko dusku.

Goizaldeko 2etan, txosnetan kontzertu paregabie "Estatuto de Guernica" bikotearen eskutik: Charles Iturgaitz eskusoinuaz eta Gorka Knorr "el sopas" kitterrajole.

7etan erraldoi eta kilikixekurtengo daue gaiteruen laguntzaz.

ABIXUEK:

Egun honetan Eskapularixue zintzilik dozuela dotore urten bie da. 20 pertsonatik gorako kuadrillie dozuenok, gogoratu 943 797199 telefonora deiketie komeni jatzuela batera ibiltteko baimena euki daizuen, bestela igual ezin izengo dozue ta juergie bukatu.

7.30etan Maritxun txarangiek kaliek dantzan ipiniko dittu Txumaien zuzendaritzapeien.

8.30etan datorren urtien, oin etxetik falta dien danak etxien egon daittezen, Maritxuri einddako lore eskaintza.

Eta zela ez! Ezin-juan gure herriko preso, deportatu eta errefuxiatuekin akordau barek. Datorren urtien Maritxu danok batera ospatukou. Bai horixe!!

Gaueko 9etan bertso saio mundiala ertzain etxeko aparkalekuen. Bertsolarixek: -Savater "pregonerue",

-Maritxu Kajoi Batzordie-



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Maritxu Kajoik mende

Gaur, egubakoitza, Maritxu Kajoik 25 urte bete ditu, eta Arrasaten izango direnak, eta beste askok ere, ederki ospatuko dute mende laurden hori. Hogeita bost urteotan, hainbat mirari, eskapulario, kartel, lore eskaintza eta abar izan dira, baina urterik urte jaia aldatuz joan da. Batzuen ustez, onera, beste batzuen ustez, txarrera, baina jaiak bizirik dirau, eta horren erru handia, behintzat, Maritxu Kajoiko batzordeak dauka.

Hiruogeita hamarren hamarkadan, Txantxote arrasatearrak ohitura berezia zeukan txikiteoa egiten zuenean. Amabirjinaren aurretik pasatzen zen bakoitzean, "topa" egiten zion ardo basoarekin, eta Maritxu Kajoiko batzordearen esanetan, hori da jai honen jatorria. 1974. urtean, orain hogeita zazpi urte, Arrasateko lauzpabost txikiterok Txantxote-


ren ohitura hori jai bilakatzea erabaki zuten, eta horretan hasi ziren buru-belarri lanean.

Hala ere, Maritxu Kajoi bi urte geroago ospatu zen, izan ere, 1975ean Iñaki Etxaberen hilketak eta hurrengo urtean Jose Luis Iñarra orduko parrokoaren heriotzak behartu zuten lehenengo Maritxu Kajoi 1976an egitea. Ordutik hona, gauzak nahikotxo aldatu dira. Hasieran,

jendea dotore janzten zen, antzinako trajeekin dotore, baina gaur egun, antzinako trajeek bide egin diete markadun traje eta milaka pezetako orrazkeri. Garai hartan, kolorezko trajeak edo jantzi zuriak ikusten ziren, baina gaur egun, gaueko trajeak izaten dira soilik.

MARITXUKO JAI BATZORDEA

Maritxu Kajoiko batzordeak hogeita zazpi urte bete ditu, eta dagoeneko hogeita hamar pertsona arduratzen dira jai hau gorpuzteaz. Jaia gizonzkoek sortu bazuten ere, gaur egun, zortzi bat neska daude Maritxu Kajoi batzordean, eta ez zaie lanik falta. Eskapularioa da Maritxu Kajoi jaia bereizten duen bes-




te elementuetako bat; urtean herrian izan den gertakizun deigarriena izaten da eskapularioko protagonista. Azkeneko hiru urteetan, herriko hildako bat omentzeko erabili izan da eskapularioa, baina aurtan, zorionez, jaiaren 25. urteurrena gogoratzea izan da helburua.

Urtero sei mila eskapulario egiten dira, baina hori ez da nahikoa jaia antolatzeke, eta, besteak beste, taberna, jatetxe eta denda artean, ia ehun komertzioaren dirulaguntza jasotzen du Maritxuk. Eskapulario gehien arratsaldeko txikiteoan saltzen dute, eta eguraldiak uste baino gehiago baldintzatzen ditu salmentak. Horrez gain, eska-



de laurden



«Koadrila gazteek Maritxuri lore eskaintza egiteko ohitura galdu dute»

pularioan azaltzen den irudiak asko laguntzen du salmentek gora egin dezaten. Pasa den urtean, denok ezagutu eta maite genuen Frai Rufinok agur esan zigun. Maritxu Kajoik gogoan izan zuen eskapularioaren bitartez, eta urte hartan, eskapulario mordoia saldu zen. Maritxutan ohitura izan da herriko koadrilek lore eskaintza egitea, baina

Maritxu Kajoiko batzordearen esanetan, koadrila gazteek ez dute ohitura hori bereganatu, eta komenigarria da gazteek ere ohitura horri eustea.

Baina hori ez da aldatu den ohitura bakarra. Orain arte, koadrilak afaltzera joaten baziren, azken urteetan askok eta askok gurago izaten dute bazkaltzera joatea, jaia motz

Mirariak urterik urte

- 1981. Ura ardo bihurtu zen plazako iturrian.
- 1982. Su-arkua. Orduetik hona, beti egiten da.
- 1983. *Marijaia* etorri behar zen, baina uholdeak gertatu zirenez, ez zen iritsi.
- 1984. Arazo teknikoak izan zirela-eta, ez zen miraririk izan.
- 1985. Ordura arteko lehortearekin amaitu zuen Maritxuk.
- 1986. Maritxuk txaranga zuzendu zuen eskumako eskua mugituta.
- 1987. Maritxu torero jantzi zen, eta orduko abesti famatu bat gogora ekarri zigun.
- 1988. Maritxuk hiesari aurre egin gura izan zion, eta zerutik kondoia jausi ziren.
- 1989. Ez zen miraririk izan arazo teknikoengatik.
- 1990. Maritxuk, herria aberastu guran, dirua banatu zuen.
- 1991. Arrasateko Nortasun Agiria kaleratu zuen Maritxuk.
- 1992. Indio batek gezia jaurti eta su-arkua piztu zuen.
- 1993. Maritxuk bideoz grabatu gura izan zigun guztioi.
- 1994. Elizan lanak baziren ere, Maritxu bere tokian azaldu zen.
- 1995. Leku aldaketa zela-eta, ez zen miraririk izan.
- 1996. Maritxu Kajoik artean desagertu zen.
- 1997. Zigorrola eta Arrasate senidetu egin ziren.
- 1998. *Egin* egunkaria argitaratu zuen Maritxuk.
- 1999. *Giraldilla* izan zen gure artean.
- 2000. Jaizkibel konpainia Arrasateko kaleetan izan zen.



1991ko kartelaren irudia.



geratuko zaien beldur.

MARITXU KAJOIKO LIBURUA

Maritxu Kajoiko batzordeak, mende laurdena ospatzeko asmoz, liburu bat argitaratzea erabaki du. Abendu aldeira irtengo da liburua: Maritxu Kajoiren historia, urte hauetan izandako kartel eta eskapulario guztiak, bizi izandako une politenak, bitxikeriak, xelebreek, eta, zelan ez, argazki mordoak ere azalduko da. Maritxuko batzor-

deak buruhauste galantak izan ditu urte ezberdinetako argazkiak batzeko, baina azkenean lortu dute.

Maritxu Kajoiko jaia urriko lehen egubakoitzean ospatzen bada ere, jai batzordeak uztailan batzarra egin ohi du, eta oportetarik bueltan lanean hasten dira. Hogeita bost urte asko dira, eta urte hauetan eskuratutako esperientziari esker, antolatze lana errazagoa da; izan ere, norberak badaki, gutxi gorabehera, zein den bere lana, eta

horrek asko errazten ditu gauzak.

Egubakoitzean, goiz partetik hasi eta poliki-poliki herria girotuz joango da. Esan bezala, aurtun, jende askok bazkaria egingo du afaria beharrean, eta arratsalderako gorbata eta trajedun gizon eta emakume asko ibiliko da Arratsateko kaleetan barrena. Arratsaldeko zazpietatik aurrera, herritar guztiak kalean izango dira, baina orain hogeita bost urte, *Txantxotek* agurtzen bazuen Maritxu, egubakoi-

tzean, milaka lagun izango dira Maritxuren mirariaren zain. Izango da ezusterik, eta Maritxuko batzordeak uste du aurtengoa gogoan izateko miraria izango dela, nahiz eta ez dagoen euren esku, Maritxuren esku baino. Santu guztiekin gertatzen den moduan, herritarrek hainbat eskaera egingo dizkiote amabirjinari: batzuek osasuna, beste batzuek dirua, eta beste askok aspaldian ikusi ez dituztenak ikustea. Etxera hanka biren gainean iristea ere eskatuko du norbaitek, eta, horrela bada, Maritxuk lan estra izango du.

Lehenengo hogeita bost urte hauetan gauzak asko aldatu dira, baina ezin asmatu hemendik hogeita bost urtera Maritxuk zelan agurtuko gaituen. Ez ditzagun gauzak aurreratu, aurtengo helburua ez da etorkizuneko Maritxu zelakoa izango den asmatzea. Gau bakarra da, hortaz, pasa diren hogeita bostak ospatzearekin nahikoa izango da, eta ez da gutxi, ez horixe!

Xabier Urzelai



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Maritxu Kajoi 2001

Arriak 5a




ARRASATE

“Oraindik zutik komisiñue nahiz ta horrela ez uste izan ditugu urterik urte makina bat buruhauste bihar ere egongo dira oraindik mila ezuste bete ditzagun osasunakin beste hogeitabost urte”

“Urte luzetan argi utzi da zein den herri honen nahia zenbait ohe hutsik egonda Maritxu ez da hain alaia hurrengo urtean egingo dugu guztion artean jaia gora preso ta bereziki aupa Txus, Premin ta Amaia”



gelatzo s.l.



Zubillaga auzoa, 1 OÑATI. Tel.: 943 71 63 22



- Era guztietako azulejoak
- Bainu altzariak eta osagarriak
- Kabinak eta hidromasaje bainerak

Arrasate

ARRASATE / ARAMAIO

Arrasaten
eta Aramaion.

Txiritola

Arrasate

Goienkaria

Debagoieneko
berri denak

GOIENKARIA
EDIZIOEKIN:
DEBAGOIENEAN

erromatar garaikoak diren arren, prentsa

erromatar garaikoak diren arren, prentsa modernoaren hastapenak XVII. mendean koka daitezke, *Nieuwe Tijdingen* egunkari belgikarra erregulartasunez argitaratzen hasi zenean.

Debagoiena aitzindari izan da Euskal Herrian herri prentsaren garapenean. 1988an, *Arrasate Press* sortu zen eta, harrezkero, beste bost aldizkari ere badaude eskualdean.

1999an, eskualdeko komunikabideen bateratzea hasi zen eta 2000n, *Goienkaria* jaio zen, eskualdeko aldizkaria.

Orain, urriaren 19an, egungo aldizkariak ediziotan batuko dira. Herri bakoitzak oraingo atal komuna eta bere edizioa jasoko ditu.

Bengalan, Antzuolan eta Etxegian.



Arexabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan.



ERREZ DA BERDIN IZANGO

URRIAREN 19tik AURRERA, ARRASATE PRESS NEURRI HONETAN, ASTERO




ETXEAN



NAHI DITUGU!



JOSEBA GARITAONANDIA




JON AGIRRE



JOSU URIBETXEARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



KEPA URRIA




JOSU ARKAUZ



UNAI PAROT




AMAIA ARRIETA



TXUS GOIKOETXEA




JOSE I. GAZTAÑAGA




JESUS MARI ZABARTE



ENRIKE LETONA



JOSE GABRIEL URIZAR



JOXE MARI PAGOAGA



ARATZ GOMEZ



ERREFUXIATUAK

EUSKAL PRESOAK




EUSKAL HERRIRA!!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

Irati, Etxerat, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Jaizale, Kimetz

Eskapularioan, Maritxu protagonista



Maritxu Kajoi bera da aurtengo eskapularioko protagonista. Eskuinean, aurtengo bertsoa.

Zer izango litzateke Maritxu Kajoi eguna jendeak eskapularioa lepotik zintzilik eramango ez balu? Zer edo zer galduko luke. Izan ere, Maritxu Kajoi jaiak badu, ondo errotutako jai guztiek bezalaxe, erri-tual kutsua: idatzi bariko hainbat lege errespetatu behar dira, eta eskapularioa eramatea da horietariko bat.

Urtero-urtero, pertsona edo gertakizunen bat gogora ekar-tzen digu eskapularioak. Alde baten, Maritxuren irudia, eta bestean, omen-dutakoaren irudia edo bere gainean bertso edo testu laburra agertzen dira. Aurten, 25. urteurrena beteko denez, zein eta Maritxuren beraren ohorezko eskapula-

rioa egitea erabaki du Mari-txuko jai batzordeak.

BESTE HELBURUAK

Dena dela, eskapularioak beste helburu batzuk ere betetzen ditu. Horien artean, garrantzi-tzuenetako bat jai bera ahal-bidetzea da, nahiz eta modu sin-bolikoan izan. Batzordeak sal-gai ipintzen ditu zintzilikariak,

beti 200 pezetan. "Aurten, azkeneko aldiz izango dugu sal-neurri hori, datorrenean euroa izango dugu-eta!", ohartaraz-ten dute antolatzaileek. Aurten, 6.000 eskapulario izango dira salgai, eta jai batzordeak dei berezia egiten diete Maritxu-zale guztiei euren erosketa egi-teko, apaingarri hori trajea bera bezain inportantea delako!

Bestalde, aurten, jai bera omentzen bada eskapularioa-ren bitartez, zintzilikari horrek ez du beti hain kutsu alairik izan. Bertan agertzen diren kontuek zerikusi estua izaten dute urte-an gertatutakoekin; hori dela eta, sarri agertu izan dira urte-an hildako lagunak. Iaz, adi-bidez, Frai Rufino agertu zen. "Herriak zenbat maite zuen ondo islatu zen salmentetan; izan ere, marka guztiak hautsi genituen", diote batzordekoek.

Eskapularioaz gain, egita-rauaren esku-orria ere ome-naldiak egiteko erabiltzen da. Iaz, esaterako, Felix Inurrate-gi mendizalea agertu zen; aur-ten, Arrasateko presoak omen-duko dira.

« Eskapularioan agertzen diren kontuek zerikusi handia dute urtean zehar gertatutakoarekin »

Aretz
Taberna
Markole, 5
943 79 20 14

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Janaria umorearen truke



Adin guztietako arrasatearrek gura bezainbat gazta jan zuten.

Eguraldiak ez zuen lagundu, baina Maritxutako Nobenai-xue edo Bederatziurrena urtero moduan ospatu zen, hutsik egin barik. Joan den egubakoitzean, hilaren 28an, izan zen hori, 18:30etik aurrera, herriko plazan apropos erakitako aterpe baten. Jakina, Maritxuren bedeinkapena jasotzeko, haren irudiaren ondoan ipini zuen txosna batzordekoek.

Haraino hurbildu ziren hainbat eta hainbat arrasatear, hantxe, "umore onaren truke", jai batzordearen hitzetan, gura bezainbat ardo, gazta eta ogi dastatzera. Hala ere, zaparradarengatik-edo, beste urte batzuetan baino herri-tar gutxiagok parte hartu zuela esan beharra dago.

TXIKITEROEN PATROIA

Aurten, Arabako Errioxako ardo gozoa edan ahal izan zuen jendeak, baita Idiazabalgo 30 kilo gazta edo base-rriko 22 ogi handi jan ere.

Badakigu Maritxu Kajoi jai berezia dela; izan ere, Maritxuren irudia, izatez, Errosarioko Amarena da. Hortaz, Nobenai-xue ere berezia izan behar da, nahitaez! Santu guztiei, euren eguna iritsi baino bederatzi egun lehenago, Bederatziurrena egiten diete, bai omenaldi moduan baita euren eguna aldeztatik ospatzen hasteko ere. Maritxu Kajoi ere badu berea, baina, kasu honetan, ardoa ezin garrantzitsuagoa da, txikiteroen patroia delako.

27 urte jardunean



Hogeita zazpi dira bospasei lagun elkartu eta, txikitero baten ohitura hartuta, Maritxu Kajoi jai asmatu zutela. Harrezkero, Mondragoeko jai guztiz ezaguna da bai guretako baita kanpotar askorendako ere. Eta horren arrazoi nagusia da, besteak beste, Maritxutako jai batzordea ekin eta ekin jardunean ibili dela urte hauetan guztietan. "25 urte badira eta neurria hartuta diogu, baina lana da, bai; adibidez, buruhauste handiekin ibiltzen gara mirariak topatzeko", horixe adierazi digu batzorde-

ko kide batek. Herritik sortutako jai da eta herriak egiten duena, oso-osorik.

Finantzaketaz ere jai batzordea arduratzen da, eta ez da aurrekontu txikia: 1.700.000 pezeta inguru. "Kostatzen zaigu diru hori ateratzea: eskapularioen bidez eta tabernen eta jatetxeen bidez egiten dugu. Eta eskerrak horri, bestela ezin izango genuke ezer egin eskapularioarekin bakarrik". Gaur egun, 30 bat lagun dira; horietatik, zortzi neska bakarrik daude; hortaz, horra hor gonbidapena datozen urteetarako.

Komisiñoko partaideak


Txispas
Luisito
Fernando
Patxi
Juanito
Junkal
Utzune
Iraitz
Igor

Onintza
Karlos
Luis
German
Oihana
Jokin
Josu
Ekain

Jabi
Nagore
Aitziber
Gatxi
Harristi
Euskadi
Eduerne
Iker

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE



TXIRRI
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

bbk



Getaia Udalak



Gernika Udalak

ALZA

gertu
INPRIMATEGIA

teitb
euskal irratiz telebista

ULMA

GOR



Gipuzkoako Foru Altxandria
Diputacion Foral de Gipuzkoa

JAY

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

COPRECI

DRUCK

Euskaltel



Felix Iñurrategi - Baltistan
Fundazioa

J A I A L D I A

*elkartasunean
mendia bide*

Ainhoa Arteta

Kepa Junkera

Mikel Urdangarin

Andoni Egaña

Bideoproiektzioa

Mikel Martinez eta Patxo Telleria

Argia Dantza Taldea

BILBO • Euskalduna Jauregian

Urriak 12 gaueko 21:45etan

Sarrerak 94 431 03 10 Tfnoan. salgai

SARRERAK SALGAI:

OÑATI

Izarraitz taberna
943 78 22 47

BERGARA

Ariznoa taberna
943 76 52 30
Bilintx liburudenda
943 76 40 50

ANTZUOLA

Martin okindegia
943 76 64 35

ELGETA

Panaderokua taberna
943 76 82 73
Haize taberna
943 76 82 56

ARRASATE

Monte taberna
943 79 20 56
Sportland (Forum)
943 77 30 72

ESKORIATZA

Namaste belar-denda
943 71 43 27

ARETXABALETA

Arlutz taberna
943 79 32 34
Gurea taberna
943 79 20 64

LEINTZ GATZAGA

Udaletxea
943 71 47 46




Kaleko giroa.

Iazko miraria.



Su jauzia.



GANBARA

Arte eta enmarkazioak

- *Margolanak, arte lanak.*
- *Laminak, litografiak, akuarelak.*
- *Estiloko markuak, ispiluak.*
- *Aintzinako bitxikeriak.*



Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37


Deportibo baten **2** eserleku dituzu.

Auto baten **5** eserleku dituzu.

Opel **Zafira** da bere mailan
7 eserleku dituen bakarra.



Opel **Zafira**. 7 aldiz malguagoa.

OPEL 

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu Oficiala

TAKOLO AUTOAK

Araba Ertobidea. Tfnoak. 943 77 30 10. ARRASATE-MONDRAGON

Segurtatu hobeto zure autoa

Segurtasun osoz



MAPFRE

Zure bizitza kalitatea segurtatzen dugu

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22 • Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04

Maritxutako girorik onena!!!

Maritxutako girorik onena!!!

Maritxutako girorik onena!!!




Itzala

Formal ibili Maritxutan!!!

Iturriotz kalea, 19
943 77 30 29

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56



**ESKIÑA
taberna**

Ondo ibili Maritxutan!
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE

943 71 29 95 - 20500 ARRASATE

**ARROGOI
TABERNA**

Maritxuak iritsi dira, zatorz sugana!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

RUMBA TABERNA

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00



**Aupa arrasatearrak!
Aupa Maritxuak!**

DISCO-BAR



**Disco-Bar Gurelekuk
MARITXU ZORIONTSUAK
opa dizkizu.**

Zarugalde, 17 beheka • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 29

Lau t'erdiko txapelketako pilota partidua Arrasaten



Zapatuan, partidu profesionalak izango dira Uarkapen.

Martitzenean, T5eko lau t'erdiko III. txapelketa aurkeztu zuten, eta lehenengo partidua bihar jokatu da Arrasateko Uarkapeko pilotalekuan. Txapelketan, Asegarceko hainbat pilotari arituko dira, eta Arrasaten, Asier Olaizola eta Abel Barriola izango ditugu aurrez aurre. Hala ere, lau t'erdiko partidu horrez gain, beste bi pilota partiduz gozatzeko aukera izango dugu.

Arratsaldeko bostetatik aurrera, Martin Alustiza eta Errastik osatzen duten bikote gipuzkoarrak Nagore eta Zearra izango ditu aurrez aurre. Arratsaldea hasteko norgehiagoka ikusgarria izango da, bi bikoteetan beteranotasuna eta gaztetetasuna nahasten dira-eta. Gero, lau t'erdiko partidua jokatu dute. Txapelketa hasteko, Asier Olaizolak Abel Barriolaren aurka neurtu

beharko ditu indarrak. Lehenaren indarra, bigarrenak era honetako partiduetan daukan esperientziaren kontra. Eta hori gutxi balitz, pilota jaialdia amaitzeko, bigarren mailako pilota partidua ere jokatu da, eta hor pilotari nafarrak izango dira protagonistak, laurak, hain zuzen: Beloki II.a eta Bejino Retegi VI.a eta Bengoetxea V.aren kontra arituko dira.

Txapelketako lehenengo partidua zapatuan jokatu bada ere, domekan, Patxi Ruiz eta Mikel Unanue lehiatuko dira Lodosako pilotalekuan. Hurrengo zapatuan, urriaren 13an, Ruben Beloki eta Jorge Nagore arituko dira nor baino nor. Biharamunean, urriaren 14an, Carlos Armendariz eta Aimar Olaizola izango dira aurrez aurre. Finalerdiak urriaren 20 eta 21ean jokatu dira. Final handia urriaren 27an izango da Gasteizko Ogeta pilotalekuan.

Bigarrenen ere, kale

Aurreko astean, zapatuan, hain zuzen ere, Kenci Arrasate taldeak etxeko lehen partidua jokatu zuen, eta arerioa, Campus Alava taldea, nagusi izan zen (87-98). Partiduak erritmo bizia izan zuen, jokaldi lasterrak eta saskiratze asko izan ziren, baina bi taldeetako defentsak ez ziren batere fin ibili. Partiduan, Arrasateko taldeak hainbat defentsa mota erabili zituen, baina batek ere ez zuen lortu arerioak geldiaraztea. Horretan hobetu beharko dute Iker Zubiriaren mutilek, izan ere, erasotzerakoan zailtasun gutxi izaten dute mondragotarrek.

Denboraldi hasiera honetan, Kenci Arrasate taldeak aurkari gogorak izan ditu. Bihar, zapatua, Eurotaller talde bilbotarraren kontra jokatu dute. Arratsaldeko zortzietan izango da norgehiagoka, Bilbon. Iker Zubiriak zazpi jokalar senior baino ez ditu, eta gaur Maritxu Kajoi dela kontuan izanda...

500.000 pezeta gastatzeko gai zara?

Zatoz, erosi eta irabazi
itzazu 500.000 pezetak

ibai-arte

Aritz Murgia, lasterketatik kanpo



Auto txikiak izanda ere, iluskizun bikaina eskaini zuten Garagartzan.

Aritz Murgia arrasatearrak ezin izan zuen Garagartzako III. Irrati Gidatuen Txapelketa irabazi, baina ez da izango ahalginik egin ez zuelako. Hasie-

ra-hasieratik, arrasatearrak sekulako abilezia erakutsi zuen, eta hura izan zen lasterrena, azkeneko lasterketan autoa hautsi zitzaion arte. Lasterke-

ta ikusgarria izan bazen ere, antolatzaileak ez ziren oso pozik agertu, izan ere, uste zuten parte hartze handiagoa izango zela, baina asteburu berean Espainiako Txapelketa jokatzeko Katalunian, eta parte hartzaile asko proba hura jokatzerara joan ziren.


Lasterketan, 1/10 eskalako autoak izan ziren, zirkuitu mota horretarako oso aproposak. Hala ere, Aritz Murgia, hark duen auto azkarrenarekin, itzuli batzuk egin zituen, eta erakustaldi polita izan zen. 1/8 eskalako autoa zen, baina lekua ez zen aproposena.

Arrasateko VI. Txakurren Ehiza Txapelketa

Pasa den asteburuan, Arrasateko XVI. Txakurren Ehiza Txapelketa jokatu zen Santa Cruz del Fierron, Araban, eta Ramon Ramila izan zen irabazlea. Leintz Gatzaga elkarrekin antolatzen duen txapelketa honetan, 35 partaide izan ziren, eta faisaiak eta eperrak ehizatu zituzten. Bihar, eskualdekako finala jokatuko da, Santa Cruz del Fierron baita ere, eta Urretxu, Zumarraga, Legazpi, Antzuola, Oñati, Eskoriatza eta Arrasateko ehiztariak parte hartuko dute. Herri bakoitzak hiru ordezkari izango ditu, eta Ramon Ramilak, pasa den asteburuko garaipenari esker, Arrasateko taldean aritzeko aukera izango du. Eskualdekako finalean lehenengo sailkatzen direnek Gipuzkoako Txapelketa irabazteko txartela eskuratuko dute. Zapatuan, lehia handia izango da, herri bakoitzeko ehiztari onenak izango dira-eta.



Arrasate, Gipuzkoako Txapelketan



Arrasateko pilotariak Gipuzkoako Txapelketa hasi berri dute.

Dagoeneko hasi da Gipuzkoako Pilota Txapelketa, baina ezin daiteke esan etxeko pilotariak txapelketa ondo hasi dutenik. Aurreko asteburuan, Arrasateko pilotariak aretxabaletarren aurka jokatu zuten,

eta lau partidutatik bakarira irabazi zuten etxekoek. Senio-urretan, Zugasti eta Lazkano 22 eta 17 nagusitu ziren Errasti anaien aurka, baina beste bikoteek ezin izan zuten irabazi. Herri arteko txapelketako fina-

listak izan ziren aretxabaletarrenak, eta argi dago aurten ere talde polita daukatela. Gaur Maritxu Kajoi denez, hainbat partidua aurreratu egin dituzte. Atzo, Arrasateko Zugasti eta Lazkanok Azkoitiko Larramendi eta Zapiainen aurka neurtu zituzten indarrak. Gaur, Errasti eta Zuazubiskarrek Hernaniko bikotearen aurka jokatu dute, eta gazte mailako Agirre eta Jiménezek Añorgako bikotearen aurka jokatu dute. Arrasateko gazte mailako beste bikoteak ez du aurrekoen zorte bera izan, eta ezin izan du partidua aurreratu. Hortaz, Zapatu arratsaldean, Zuazua eta Arroiabek jokatu dute.



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Tel.: 943 79 22 70



Erdiko kale, 4 • ARRASATE • 943 79 46 94

*Udazken - neguka
bilduma berria
dagoeneko
zure esku*



Beatriz

oinetakoak

60 talde Eskola eta Aisialdian

Txatxilipurdi elkarteak abian du Eskola eta Aisialdia egitasmoa. Aurten, 60 ikasle taldek parte hartuko dute; 9.607.860 pezetako aurrekontua du proiektuak, eta hortik, erdia Udalak ipiniko du, %33 ikastetxe parte hartzaileek eta %17 Txatxilipurdik.

Bosgarren ikasturtea izango du aurten Eskola eta Aisialdiak. San Andresko, Musakolako eta Erguingo herri eskolek, La Merced ikastetxeak eta Institutuak parte hartuko dute.



Irteera kulturalak egiten dituzte parte hartzaileek.

LAGUNEKIN, EUSKARAZ

Aisialdi eta hezkuntza programa bat da Eskola eta Aisialdia, eta 12tik 18 urtera artekoengan euskararen erabilera indartzeko jaio zen: "Ikusi genuen bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, ikasle gehienek

B edo D ereduak aukeratzen zituztela, baina, lagun artean, askok gaztelaniara jotzen zutela", dio Udaleko Euskara Sailak. "Gauzak horrela, lagun arteko ekintza horiek euskaraz egiteko aukera eskaintze-

ko antolatu genuen egitasmo hori".

Ekintzen artean, gazte txokoan erabilera, irteerak, euskal dantzak, euskarazko karaokea, tailerrak, herri kirolak, eta abar daude.

Sari barik

Arrasateko Komiki Ez Sexisten IV Lehiaketako sariak eman barik geratu dira, "lanen maila kaxkarraren aurrean", epaimahaiaren esanetan. "Lehiaketa honetatik ateratzen ditugun ondorioen artean, aukera berdintasunaren inguruan dagoen informazio eza eta honek dakarren ezjakintasuna eta ideien nahastea aurkeztu dizkigu", diote.

Lehiaketaren asmoa kontuan hartuta, hots, aukera berdintasunaren gaineko informazioaren argibide izatea, datorren urtean baliteke lehiaketaren ordez Udalak ikastaroa antolatzea.

Antzerki tailerra

AED elkarteak antzerki tailerra antolatu du urriaren 20tik urtarrilaren 26ra bitartean. 12 jardunaldi izango dira. Izen emateko epea zabalik dago urriaren 11ra arte. Horretarako, 943771228ra deitu behar duzue.

ZAPATU GOIZETAN

Eskolak zapatuetan emango dira, 10:00etatik 14:00etara. 17 urtetik gorako guztioi dago zuzendua deialdia, baina, batez ere, helduen parte hartzea bultzatu gura du AEDk.

Aitziber Zumalde aktorea izango da irakaslea. Dagoeneko antolatu du egitaraua. Besteak beste, hainbat antzerki-lan hartu eta horien gainean egingo dute lan.

Numen-ek lehen diskoa grabatu du

Numen musika talde arrasatearrak lehenengo diskoa kaleratu du oraingo hilean, *Galdutako itxaropenaren eresia* izenburuarekin. Abuztuan grabatu zuten, herriko Shot estudioetan, eta orain gertu daude lana merkaturatzeko. Zortzi bat abesti izango ditu diskoak.

Taldekideten esanetan, musikan espezializatutako hainbat argitalpenek dagoeneko eskatu diete ale bat. Erosileek zertxobait gehiago itxa-



Taldea, iazko irudi baten.

ron beharko dute diskoa entzun ahal izateko.

ORAIN ARTEKOAK

Sei lagunek osatzen dute gaur egun Numen taldea, izan ere, eurentariko batek utzi egin behar izan du.

1998an taldea sortu zenetik hona, ez dira gora begira ibili: maketa bat kaleratu zuten iaz: *Haize sorginduen intziriak*. Ea ba zortea duten euren erronka berriarekin.

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**Comercial
ARPE**

**Ile apaindegirako
artikuluak**

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

AITZIBER RETOLAZA (SUKALDARITZA IKASTAROKO IRAKASLEA)

« Sukaldean ondo moldatzen praktikaren bidez ikasten da »

Urriaren 8tik abenduaren 10era bitartean, sukaldaritza ikasi gura dutenek hitzordua dute astelehen arratsaldero Aitziber Retolaza arrasatearrarekin; izan ere, Ekin Emakumeak elkarteak hastan mailako Sukaldaritza Ikastaroa antolatu du, eta Aitziber izango da irakaslea. Sukaldari profesionala dugu, eta jatetxe eta elikadura enpresatan egin izan du lan.

–Zein da ikastaroaren helburua?

–Eguneroko platerak prestatzeko ideiak ematea eta plater horiek egiten irakastea hala behar duten guztiei. Batzuk egin egingo ditugu, eta beste batzuk azaldu: lekaleak, barazkiak, pasta mota desberdinak, arroza, zopak, entsaladak, patatak... ikusiko ditugu lehenengo plater moduan. Bigarreneko, okela-labea, saltsa, frijitua...-, hegaztiak, arraina, arrautzak... Era berean, saltsa mota desberdinak eta postre errazak landuko ditugu. Oro har, sukaldean galduta samar dabilzanendako da ikastaroa.

–Zeintzuek behar dituzte gehien argi-bide horiek?

–Nire ustez, gazteek, betidanik etxetik kanpo bazkaldu izan dutenek, baita etxean aitak edo amak zer prestatzen zuten ikusteko aukerarik izan ez dutenek ere.



Sukaldean ondo moldatzen praktikaren eta esperientziaren bidez ikasten da: hasieran, beharbada, platera ez zaizu ondo aterako, baina eginaren beharrez, ikasiko duzu.

–Praktikaz gain, zer gehiago behar da sukaldari ona izateko?

–Gustatu egin behar zaizu; sukaldean ibiltzea entretenigarria ere bada. Horrez gain, noizean behin irudimena erabili behar da, gauza berriekin probak egitea.

–Zer deritzozu janari lasterrari?

–Daramagun bizimoduarengatik, gizar-teak janari arinak jatera bultzatzen gaitu; noizbehinka hori egitea ez dago txarto, baina hori baino garrantzitsuagoa da ondo elikatzea eta janari osasungarriak hartzea. Egia esatearren, nire ustez, ez dakigu ondo jaten.

–Zelan ikasten da hori?

–Oro har, denetarik jaten. Eskura ditugun produktu guztiak aprobetxatu behar ditugu. Eta barazki gehiago jan beharko genuke.

« Sukaldari ona izateko, esperientzia izateaz gain, gustatu egin behar zaizu, eta irudimena ere behar da »

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Zugan pentsatuz, laguntzeko prest

- Plantila bereziak, behar bakoitzak berea.
- Aluminiozko gurpil aulkiak; arinak, tolesgarriak eta elektrikoak.
- Ohe artikulatuak, koltxoi bereziak.

Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

BOLIÑETE

OILASKO ERRETEGIA

Bertan jateko edo eramateko.

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

TDCi

Common Rail berria
130 CV



lider **naturala**

MUGARRI



DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE

Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

www.mugarri.es / mugarri@mugarri.es



Crisanta Hernández Diskopolis dendakue

Arrasaten musikie erosteko asmue daukugunien, askotan berangana jotzen dogu. Crisanta deiketan bada be, jentiek Cris deiketan dutzo. Hamabi urte daroie diskuek saltzen, ezkondu dago eta bi seme dauko. Etxien danetik entzuten dauela esaten dau, batzuetan musika gogorra, bestetan musika lasaixe, baiñe senarrak, aukeran, musika lasaixe gurago dau. Oso jatorra da eta, azkenien, neuk be disko bat erosi dutzet.

-Esaidazu guzur bat.

Mundu osuen poztasune dago.

-Amets bat.

Bakie danondako.

-Amets txar bat.

Gure semiei zeozer pasetie.

-Egin dozun azken biajie.

Alacantera.

-Txartel horixe, zeñei?

Mundu danai, jeneralien, askotan pasau egitten gare-eta.

-Eta gorrixe?

Politikuei, duda barik.

-Film bat? Liburu bat?

Blade Runner / El buscador de conchas.

-Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

-Eta prostituziñue?

Baita be.

-Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

-Etxeko zapatillek ala zapatak?

Etxeko zapatillek, duda barik.

-Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Dana, jeneralien.

-Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Kaleko garbittasune gehixago zainduko neuke: txakur kakak, gure zaborrak...eta, horrekin batera, aparkalekuen arazue.

-Eta lehendakari izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Pentsetie be ez dot gure.

-Bizio bat?

Tabakue.

-Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?

Logroñora; oso hiri lasaixe da.

-Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Senarra.

-Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

J.J. Benitez idazlia ezauketie gustauko litxakit, pertsona interesantie emuten dau.

-Tranpan ibilttekotan norbaitekin, zeñekin?

Zeuri esango dotsut!

-Zertan gustauko zeunke dirue?

Bigarren etxe bat erosiko neuke.

-Zer da gehixen saltzen dozuena?

Musika gogorra. Azkenaldixen, Limp Bizkit eta holakuek. Harrigarrix da ondiokan Eskorbuto zenbat saltzen dan.



“Harrigarrix da Eskorbuto zenbat saltzen dan; gaztiengan aldi edo epe bat marketan dau”

-Lanien zer da gehixen gustetan jatzuna?

Jentiekien tratuan egittie.

-Eta gutxien gustetan jatzuna?

Ordutegixe, ezin neike umiekin gura beste egon.

-Ze eruango zeunke etxera entzuteko?

Danetik. Hamen danetik entzuten dotenez, azken baten, beste musika bat apreziatzen ikesten dozu.

-Azkenaldixen entzun dozun talderik onena?

Kepa Junkeraren azken diskue oso ona da, eta Rosanarena be bai.

-Ze kontzertu motatarako saltzen dittuzue sarrerak?

Gehixenetan, musika gogorrerako sarrerak eukitten dittugu, gaur egun, mota horretako eskaintza haundixe da-eta.

-Ze ez zeunke sekula be entzungo?

Camela.

-Eskatu dutzuen musika edo talde arraruena?

Behin, txorixendako musikie eskatu eusten batek. Haren txorixek ez euela kantuen egitten eta, erakusteko. Itxuraz, bada-go.



Alkateak entzuleen galderei erantzungo die datorren eguenean

Xabier Zubizarreta alkatea Arrasate Irratira etorriko da datorren eguenean, hilaren 11n. Goizeko 10:20tik aurrera, irratiko kazetarien galderei erantzungo die alkateak, baina entzuleek ere parte hartzeko aukera izango dute. Horretarako, nahikoa izango da 943 71 17 31 zenbakira deitzea. Hala ere, goiz horretan irratirik entzuterik ez baduzu, baina alkateari zerbait galdetzea nahi izanez gero, dei egin aurrez irratira eta kazetariei adierazi zer den galdetu gura duzun hori.

PROGRAMAZIO BERRIA

Datorren astelehenean, neguko programaziorari helduko dio Arrasate Irratiak. Goizeko 9etan hasiko dira herriko irratia saioak, eta

eguerdiko 12etan bukatu. Baina badakizue arratsaldetan goizeko saioak errepikatu egingo ditugula, eta gauetan kolaboratzaileen irratsaioak izango direla entzungai. Horrez gain, Euskadi Irratiaren bi albistegi ere Arrasate Irratian entzuteko aukera izango duzue: goizeko 8etakoa eta arratsaldeko ordu batekoa, hain justu.

MARITXU KAJOI

Maritxu Kajoi eguna dela-eta, gaur, hilak 5, arratsaldeko 8etatik aurrera, Arrasate Irratiak irratsaio berezia eskainiko du. Udaletxetik bertatik egingo du saioa herriko irratia. Hor-taz, irteterik ez baduzu, pitz ezazu Arrasate Irratia.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - EGUBAKOITZA

09:00 Albistegia.
09:30 Igo Autobusera.
11:30 Albistegia.
12:00 Musika.
14:00-17:00 Errepikapena.

ASTELEHENEAN

21:00 Maiuskulaz idatzitako Rocka.

MARTITZENEAN

21:00 Hi bizi hadi.

EGUAZTENEAN

21:00 Hitz eta pitz.

EGUENEAN

21:00 Mikelenea.

EGUBAKOITZEAN

20:00 Jakidiplost.
21:00 Draxtor.
22:00 In Session.
23:50 Asteko elkarrizketak.

ZAPATUAN

10:00 Musika klasikoa.
11:00 Asteko elkarrizketak.
23:50 Asteko elkarrizketak.

ZAPATUAN

11:00 Asteko elkarrizketak.

egizabal

Oinetakoak eta poltsak

Olarte, 14 • ARRASATE • 943 79 66 01
Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28



Lehen, San Viator eskola orain Gazteluondo Ikastola dagoen lekuan zegoen; eta izen osoa, San Jose Clerigos de San Viator zen. Hango ikasleak dira oraingo asteko protagonistak, 1945-46. ikasturtekoak, hain justu; Santa Barbaran dago aterata argazkia.

Goiko ilarakoak, ezkerre-

tik hasita, honakoak dira: ezezaguna, Juan Mari Azkarate, Eduardo Larreategi, Joxe Leibar, Bitoriano Ganboa, Lorentxo Altube, R. Arana, Joxe Iratzola eta D. Larrinaga.

Bigarren ilarakoak honakoak dira ezkerretik hasita: ezezaguna, Alberto Ugarte, Jesus Ganboa, Ignacio Arizabaleta, Rafael Mendikute,

Sabino Martiartu, Angel Bengoa, Enrique Dolara eta Pedro Agiriano.

Hirugarren ilarakoak honakoak dira ezkerretik hasita: Jesus Marco, Casimiro Barandiaran, Jose Ramon Azkarate, Alfonso Otadui, ezezaguna, Alfonso Astaburuaga, Ricardo Errasti, Manuel Ortue- ta, Ignacio Beitia eta ezeza-

guna.

Laugarren ilarakoak honakoak dira: Bixente Azkarate, Julian Elorza, Juan Garai, Eduardo Letona, Joxe Mari Arzamendi, Luis Mari Arana, Antonio Atxa eta Fernando Atxa.

Argazkia eta berriemailea:

Bixente Azkarate "Zelaitxo".



Ondo pasa Maritxutan!!!

Ane Lasagabaster eta Karmele Bikuña

ANE LASAGABASTER HORTZ KLINIKA



- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta inplantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora, 18 solairuartea D • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita



Haizetakoak 1,46 m².

Zenbaki hutsa baino, adimen zabala.



Automobil baten helburua da zu leku batetik bestera eramatea. Baina Peugeot 307 berrian garrantzitsuena ez da ailegatze hutsa, eramaten zaituen espazioa baino. Monobolumenaren leku zabalak eta Berlina baten arimak bat egiten dute 307aren egitura osatzeko, eta, horrela, barrualde zabala, modularitatea eta argitasuna ematen dizkizu. Termikoki isolatutako haizetakoak beroa pilatzea ekiditen du, eta sabaiaren altuerak eta aulkien arteko lekuak bidaiari-leku ezin hobe sortzen dute, erosotasunaren aukera guztietara irekia.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/11.906.05 eurotik). Diesela HDI 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik)

PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA.

ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

EKOMOBIL

Zaldispe auzoa z/g
Tel.: 943 79 50 71
ARRASATE

307 
PEUGEOT



Maritxu gaueko lilura zure etxean.

grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores
a. eme. sukaldeak
centro hogar mueble
sofa leku

■ Tel.: 943 79 15 03
■ Tel.: 943 77 14 92
■ Tel.: 943 71 10 12
■ Tel.: 943 77 14 92

www.grupo-aeme.com grupoam@grupo-aeme.com